

Land Roverra

47.1- Taldean jarri eta erantzun galderai:

- Nork du autoa gidatzeko gidabaimena?
- Nolako autoa du Tasiok?
- Zergatik du gustuko Land Roverra gidatzea?
- Zer dio kontuari buruz Eskisabel kapitainak?
- Zer gidatzen du Kevinek?



47.2.- Herenegun reality batean hartu zuten parte Tasiok eta Kevinek. Guk ere reality saio batean parte hartzeko eskaera-gutuna egingo dugu gelan. Jarraitu urratsok:

- 1) Egin bi talde. Talde bakoitzak reality desberdin baterako eskaera egingo du: batek **sukaldaritza-reality** baterako eskaera, eta besteak **biziraupen-lehiaketa** baterako.
- 2) Taldekide bakoitzean bakarka egingo duzue eskaera idatziz (lau-bost lerro): aurkeztu zuen burua eta aipatu zuen ezaugarri eta abileziak (ez da beharrezkoa egia esatea, nahi duzuna asma dezakezue).

Adibide gisa, kantu-reality baterako eskaera duzue hau (hala ere, saiatu originalak izaten):

Ni Idoia Idiakez naiz eta 28 urte ditut. Iruñean jaio nintzen eta bertan bizi naiz. Interes handia dut kantuari buruzko realitayan parte hartzeko, izan ere, erronkak beti izan ditut oso gustukoak. Txikitatik musikazale amorratua izan naiz, eta kantu-ikastaro asko jaso ditut. Bost lehiaketatan parte hartu dut eta lehenengo postuetan gelditu naiz. Ahots polita dudala uste dut eta edozeinekin lehiatzeko prest nago.

- 3) Talde batek beste taldearen idatziak jaso eta, eztabaidatu ondoren, bi hautagai onenak adostasunez hautatuko ditu.
- 4) Realityetara bidaliko diren ikaskideen aurkezpenak irakurri eta hartutako erabakia arrazoituko duzue.



47. atala: Taldean

Transkripzioa (02:50)

T- Hi, Johnson, hik gidabaimenik ba al daukag?

K- Gidabaimena? Zertarako?

T- Jo, kotxeak gidatzeko.

K- Ja, bai, ulertu dut, baina zertarako behar dut gidabaimena kotxea gidatzeko?

T- Bada, nik bazeukeat bada.

K- Ja, zu basajaun bat zarelako, iraganeko espezie bat.

K- Eta zertarako balio dizu?

T- Bada, kotxe klasikoak gidatzeko. Badakik, martxak dituztenak eta oinekin azeleratu eta frenatu behar diren kotxeak.

K- Jo, ze kotxe duzu ba?

T- 50 urte dituen lur orotarikoa.

K- Lur zer?

T- *Todoterreno!*

K- Eskisabel kapitaina, ba al zenekien Tasiok gidabaimena duela?

E- A, bai? Eta zertarako?

T- Kotxe zaharrak gidatu ahal izateko.

K- Ezkontzen zarenean, badakizu, Eskisabel, eska iezaiozu bere *todoterreno* zaharrean eraman zaitzala.

E- Baina, benetan duzu gidabaimena, Tasio?

T- Bai, eta duela 50 urteko Land Roverra.

E- Bada, gaur egun ez dut uste halako kotxeek zentzurik dutenik.

T- Niri kotxea gidatzea gustatzen zait eta ez kotxeak ni gidatzea.

E- Matxitoagoa sentitzen zara kotxea gidatzen duzulako?

T- Ez, e... ze demonio!, bada, bai. Ez zait makinaren esklabo izatea gustatzen, e? Ni, nire Land Roverra gidatzen dudanean munduko erregea sentitzen naiz.

K- Kar, kar, kar... Sarasola, matxito!

E- Ez al zarete jabetzen 2056. urtean, kotxeak eta motoak erabiltzen jarraitzeak ez daukala zentzurik? Gizarte iraungarria, ekologia, ekonomia... Arrazoi asko dago garraio publikoa erabiltzeko!

T- Ba... klaro, zuk diozulako.

E- Nik ez, ikerketek eta inkestek diote.

K- Hala ere, Tasio, munduko erregea sentituko zara, baina, Teslaren garaitik, kotxeek guk baino hobeto gidatzen dute.

T- Hori hik esango duk.

K- Nik ez, ikerketek eta estatistikek.

E- Tasio, aspaldidanik da fidagarriagoa kotxea, gidaria baino.

T- Baina, zer jakingo duzue zuek bada, e? Ez daukazue gidabaimenik eta ez dakizue kotxerik gidatzen.

K- Nik kotxea ez, baina motorra gidatzen dut.

T- Motorra?

K- Bai, uretako motorra. Miamin ez dugu besterik erabiltzen. Badakizu ozeanoak metro bat igo zirenetik errepideak kanal bihurtu zirela eta...

T- Uretako motorrak anormalentzako ibilgailuak dituk.

K- Zuk diozulako.

T- Nik ez, ikerketek eta inkestek.

Erantzunak

47.1.-

- Tasiok
- 50 urte dituen lur orotarikoa
- Autokoa gidatzen duelako, ez autoak bera. Martxak dituzten autoak ditu gogoko, munduko erregea sentitzen baita horrela.
- Ez du zentzurik bere ustez. Fidagarriagoak dira autoak gidariak baino.
- Uretako motorra